

AZKENEZ, HARA HEMEN, SUKALDARITZAKO HASTAPENAK EMATEN DIGUN PENA.—Edorta Agirrek argitaratu berria du *Sukaldaritzako hastapenak*. Sarrerako «Aurreproposamena edo» idaztean trunpatu da. Ez da harritzekoa, zeren «Aholkuren bat» en aintzitik datorrenez. Informaketa kaxkarra agertzeak ere ez gaitu harritzen, egilea bera zenez aldez aurretik informatu gabea. Edo, bestela, esan zaharrari lotuko natzaio: Lotsagabeak herria bere.

Hitz-joko arraroak egiten besteok ere aspaldi ikasi genuen eta delako egile, biltzaile, neurtzaile, ordenatzaile edo desordenatzailea aipatzen ez dakit bere mailara makurturik Edortaz edo «Edozertaz» ihardun behar dudan. Halakoa irten denez Edortaren torta. Liburuarekin zer ikusirik izan behar ez duen «Aurreproposamena edo» ez bait dakit zertara datorren, ez «Normalizazioa bai, hiztegi espezialduak ez...» esaldiak eta bere ondorengoak Euskaltzaindia saltsa hortan sartzaz. Nik dakidanez, Euskaltzaindiak ez bai dio ez batari eta ez besteari ezetzik eman. Baina, liburuaren hitzaurrea irakurtzeaz, badirudi Edorta Agirrek badakiela euskaltzainok ez dakigun zerbait; ez dakiena, zera da, bere gaiaz euskaraz zer idatzi den. Argi dago gastronomia jakintzan erdal mundutik euskaldungotik baino hurbilago dabilela eta hitzaurre horren bidez, bere sukalde konpondu beharrean besterena konpontzen ari dela.

Txo: bakoitzak berekin ere aski diagu.

Bere ustez, *Escualdun Cocinera* (1864) eta *Cocinan Icasteco liburua* (1889) dira euskaraz gai hortaz idatzi diren bakarrak: «Harez gero, jai». Bapo mutil; ederki! Jai? Bai noski hire mundu tipian, liburu horren bibliografiatxo hortan erakusten denez. Baina ez zen horrela izango euskarazko lanak irakurri balitu.

Euskaldunontzat, mahain ingurua, otortu onaren ondoren solaserako aukerakoa bada, baita ere jakite hegoez abiatu irakurketaren bidez jakituria hornitzeko ere. Baina, ageri denez, E. Agirrek lehenengoaz baizik ez daki.

Hemeretzigarren mendeko modak iragan eta gainditu zirenez, Euskaltzaindiak, erakundearen sorreran bertan eratu zuen lehen literatura saria sukaldaritzaz izan zen eta handik sortu eta argitaratu zen Julene Azpeitiaren *Osasuna, merketza eta yanaritza* (1920) deritzan liburua, E. Agirrerentzat sineskaitza bada ere, euskara hutsean idatzia eta Euskaltzaindiak berak argitaratua.

Txo: sinestu behar duk, zeren izena badik eta gure mitologian izena duen guztia omen zegok. Gainera, neronek begiz ikusi eta eskuz ikutua diat.

Egilea bera ote da bere burua hemeretzigarren mendean kokatua duena? A!, euskaldun gastronomiaz erdarazkoa haina baleki.

Txo: huts hori ez duk hirea bakarrik, baina hire hutsez errua besteen lepora ez bota.

Jakin beza Donostiako Gordailu argitaletxeak ere *Edariak* eta *Janariak* deritzaien liburuxkak argitaratu zituela 1975ean ikastoletako andereño eta maisuei hortaz zerbait irakatsi nahirik.

Txo: ordurako jaioa izango hintzen ba.

Baina, besteak beste, gai hortaz ezer esan genezake *Egan* aldizkari honen orrialdeetatik ere, gutienez hor zehar aurkitu dituen bitxikeri tipi hoietako lanaren haina. 1954tik 1976ra bitartean, hamazortzi urteren buruan, Antonio Arrue euskaltzain zenak «Jan-edanak» zeritzan saila etenik gabe eramanean zuen. Behar bada, orainarte sukaldaritzaz euskaraz idatzi den lanik mamitsuena eta hoberena, bai ugaritasunez, bai jakiak maniatzez eta baita ere literaturaren aldetik. 1977ko abuztuaren batean Donostiako *Hoja del Lunes*-ean idatzi nuen artikulu bat Arrueren gastronomi lana adieraziz (gero, 1981ean, *Bidez* liburuaren 234-238. orrialdeetan datorren ber-bera).

Ez harritu, irakurle, *Egan* aldizkari honen izenean eskerrik ematen ez badiogu. Zeren, Arrue zena, hortaz, bazen nor. Herbesteetan ere hitzaldiak emana zen. *Egan*-eko lan haiek, *Jan-edanak* izenburutzat daroan liburu batean argitaratuak dira 1979an. Lehen 212 orrialdeak euskaraz (*Egan*-en argitaratuta-koak osatzen dutena hain zuzen) eta ondorengo 131 gazteleraz, herbesteetan emandako hitzaldiak dira gehienak, eta Gipuzkoako Aurrezki Kuntza Probintziala izan zuen argitaratzaile.

Txo: *Egan*-en, A. Arruek utzi zuen plaza hutsik zegok. Hire lanekin bete ahal bahuke, orrialde honen atea idekirik zeudek. Lehengoengandik pizturik datorkigun zuzia gerokoeri eskaintzia bai duk kultur bideetatik herrigintzan jarraitzea. Gainerontzean, hitzurre petral hori ezik (informaketaren garaian informatzeke egotearren edo), liburu ona duk, hirea euskal literaturaren alorretan hain bakana ez baduk ere, eta lan ona egingo huke gai horri jarraituz. Tokirik ez diagu ukatuko. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu. Hire fruitu onen zain diagu *Egan* aldizkari hau.

J. S. M.